



## HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

### 2023ko uztailaren 5eko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko uztailaren 5ean, arratseko zazpiak eta erditan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

**Hor zirenak** : CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

**Barkatuak zirenak** : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne.

**Bilkurako idazkari izendatua izan da** : MATEO Jean François.

Deialdiaren eguna : 2023ko ekainaren 30a

Afitxatze eguna : 2023ko ekainaren 30a

### **2. ERABAKIA: ARRABIT LEPORAKO SARBIDE ARRANPAREN INGURUKO ARTZAIN SARBIDEEN SEGURTATZEA**

*(8.4 nomenklatura)*

Auzapezak biltzarkideei oroitarazi die Arrabit Lepoko bazkalekuetarako pistaren segurtatze lanak egin zirela 2021ean. Adierazi du berroneratze eta segurtatze lan gehigarriak egin behar direla Arrabit Leporako sarbidea ematen duen arranpan: profilatzea, harriztatzea eta betoia.

Auzapezak azaldu du proiektu horren aztertze gogoeta bat eraman dela Ardien Hazkuntzaren Departamenduko Zentroko artzaintza zerbitzuekin.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik:

**KONTUAN IZANIK**, interesgarria dela Arrabit Lepoko bazkalekura kabalen eramaten segitzea,

**KONTUAN IZANIK**, horretarako artzainei ekipamendu egokiak eskaini behar zaizkiela,

**KONTUAN IZANIK**, 35 000 euro ZK-ko aurrekontua

**ONARTU DU**, gorago aurkeztu den ekintzaren egitea,

CDEOko artzaintza zerbitzuari **AGINDU DIO** proiekturako laguntza teknikoa eskaintzea,

**ESKATU DU**, honako proiektua 2023ko artzaintza programan txertatzea, 73.01.06 "artzaintza inbertsioak" neurriaren baitan,

**ERABAKI DU**, Akitania-Berriko Eskualde Kontseiluak plazaratu "Atxikitzeak, errepideak eta eremuen irekitzea" proiektu deialdian dirulaguntza eskaera txostena aurkeztea,

**ERABAKI DU**, honako finantzamendu plana atxikitzea:

- Finantzazio tasa: %70
- Dirulaguntza: 24 500 euro
- Autofinantzamendua: 10 500 euro

**ERABAKI DU**, dirulaguntzen ukatearen baldintzapean, lanen honako egutegia:

Abiatzea: 2023ko larrazkena  
Bururatzeta: 2024ko udaberria

**ENGAIATZEN DA**, proiektuaren autofinantzamendu zatia bere gain hartzera,

**AGINDU DIO**, Auzapezari erabaki hauen gauzatzea eta horretarako behar diren agirien izenpetzeko baimena eman dio.

**BAIMENA EMAN DIO**, Auzapezari, ekintza horri buruzko agiri oro izenpetzeko eta behar diren izapideen egiteko.

---

Kide kopurua : 15  
Hor zirenen kopurua : 13  
Balizko boz kopurua : 13  
ALDE : 13  
KONTRA : 0  
ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.  
Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko uztailaren 5ean

Auzapeza,  
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,  
2023/07/13an publikatu edo notifikatu ondoan,  
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/07/13an.